

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Elkarteei dagokienez, gure enpresaren **lehiakide ez diren enpresekin** jarriko gara harremanetan, **enpresen arteko aliantza estrategikoaren** bidez. **Herriko supermerkatu** ezberdinekin egingo dugu lan, (Mercadona, Eroski...) gure **hornitzaileak** izango direnak. Haiengandik lehengaiak lortuko ditugu (soberan duten janaria) eta horrela gure produktua moldatu ondoren, saldu egingo dugu. Horrela, **erosle eta hornitzaileen arteko harremana** sortzen dugu, material, baliabide eta lehengaiak eskuratzeko.



Gure kasuan, hornitzaileak **ezinbestekoak** dira, izan ere, haien laguntzarik gabe gure enpresa ez litzateke aurrera joango. Horregatik, garrantzia handia daukate nahiz eta guretzat **kostu gehigarri** bat izan. Hornitzaileekin **adostuko** dugu ordainduko diegun **prezioa**; beti ere, kostuetan finkatutako kopurua bezala edo txikiagoa dela bermatuz.

Horrez gain, gure hornitzailea den supermerkatuak **marketing** ona lortuko du, gaur egun **gizartean ekologismoari** ematen zaion garrantzia dela eta.

Enpresaren sortzaileak (Joana, Adarrosa, Libe, Naia eta Natalia) izango dira enpresaren **bazkide** nagusiak. Bazkideen artean, ateratzen diren etekinak bananduko dira enpresaren finantzaketa eta inbertsioak egin ondoren.

Rolak:

- **Naia Astarloa:** Enpresako burua da, enpresaren noranzkoa zaintzen du. Taldekideen arteko adostasunen bidez erabakiak hartuko dira, guztien ongizatea eta baietza bermatuz. Horretaz gain, enpresaren finantzazioa, kostuak eta irabazi iturriak kontrolatuko ditu eta kontuan hartuko ditu erabakiak egiterako orduan; irabazietatik enpresako zenbait ataleetan inbertituko den proportzioak bideratuko ditu, eta askenik, sobratzen den kopurua bazkide guztien artean era berdintsuan banatuko du.
- **Libe Basabe:** Saltzailea izango da, dendan beti egongo den pertsona eta bezeroekin harreman zuzena izango duena. Enkarguak, erosketak eta stock-a antolatuko du; behar diren dietak, janari kantitateak eta dendan daukagun produktuak nahikoak direla bermatzeko. Enpresaren jarduerak, eginkizunak eta jarduerari buruzko ezagutza baita dietei buruzko zehaztasun guztiak bezeroen zalantzak edo jakingurak asetuko ditu.
- **Adarrosa Wilches:** Dieten prestaketa eta enpaketatzea egingo du. Txakurraren adin, mota, tamaina eta jarduerari dagokion kantitateak eta osagaiak esagutzen ditu, eta horrela, bezeroak eskatutako produktua

ekoiztuko du. Dietetan aldaketak egon behar badira, al baitarien jarraibideak kontuan hartuko ditu, dieta moldatzeko beti txakurren osasuna bermatuz.

- **Joana Sanchez:** Janari bilketa egiteaz arduratuko da, hornitzaileekin harremanetan jarriko da, Libek zehaztutako janari kantitatea biltzeaz bermatuko da. Supermerkatura furgonetaz joango da, supermerkatuak prestatutako baliabideak jasotzeko.
- **Natalia Martinez:** Webgunearen eta sare sozialen burua izango da, marketingaz arduratuko da eta bere betekizuna bezeroak erakartzea izango da. Instagram kontuan story-en bidez, bezeroak dituzten zalantzak edo gomendioak jasotzeaz gain, bakoitzari erantzungo dio, ahalik eta irtenbide edo erantzun aproposena emanaz. Blogean dietari buruzko informazioa baita enpresaren jarduerari eta betekizunei buruzko zehaztasunak publikoarentzat ikusgai jarriko du.